

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onarpena ematea jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2016ko eroldari

Ediktua

Nik, Josune Irabien Marigortak, Amurrioko Udaleko (Araba) alkate naizen honek,

Jakinarazten dut:

Tokiko gobernu batzarrak, 2016ko irailaren 22an egindako bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2016ko eroldari (16020C2141 espediente), eta 2016ko urriaren 3an argitaratu zen ALHAOn, 111. zenbakian. Erabaki horren aurka erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko egiten da erabaki hori, eta argitara ematen da otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, zergen orokorrak, 98.3. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren aurtengo ordainagiriak ordaintzeko moduan egongo dira, borondatezko aldian, 2016ko azaroaren 1etik 2016ko abenduaren 31 bitarteko egun baliodunetan, bi egun horiek barne.

Eragindako zergadunek Laboral Kutxak Amurrion dituen bulegoetan (Mendiko kalea, 1) ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, astelehenetik larunbatera, 08:30etik 10:30era, adierazitako epean.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, eta kobratu beharrekoari ehuneko 20ra arteko errekar-gua aplikatuko zaio, indarrean dagoen Zerga bilketarako Araudi orokorrean ezarritako xedape-nekin bat etorritik; errekar-gu hori eta luzapenarena bateragarriak dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2016ko urriaren 27a

Alkatea

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA